


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,2 igo dira 2009ko uztailean, aurreko hilearen aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2008ko uztailetik 2009ko uztailera) eraikuntzaren kostuek % 1,7 egin dute behera.

EUSTATen datuen arabera, Euskal AEn eraikuntzako kostuen indizea % 0,2 igo da 2009ko uztailean, aurreko hilabetearen aldean; horrela, hilabete horretako urte arteko tasa % 1,7ra jaitsi da.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2009



(*)Gehikuntza uztailako urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2009ko uztailean, eta aurreko hilabetearen aldean, lanekuaren kostuak ez du inolako aldaketarik izan (% 0,0), baina lehengaien kostuak % 0,3 egin du gora.

Uztailean, hilabete batetik besterako tasak aintzat hartuta, Eraikuntzaren eta Obra Zibilaren azpisektoreek antzeko bilakaera izan dute horien lehengaien kostuan; Eraikuntzan, aurreko hilaren aldean, % 0,3 igo da lehengaien kostua eta Obra Zibilean % 0,2. Bi azpisektore horien urteko bilakaerari dagokionez, alde nabarmenak eman dira: eraikuntzako lehengaien kostuek % 1,1 egin dute behera, eta obra zibilekoek % 9,2.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenak ondokoak izan dira: ura (% 7,4), mineral ez-metalikoak (% 4,5), altzarien fabrikazioa (% 2,0), makineria (% 1,5) eta kautxua eta plastikoa (% 1,5). Beste alde batetik, urteko prezioetan beherakada handiagoa izan dute (2008ko uztailetik 2009ko uztailera) hurrengo sektoreetako lehengaiak: petrolioaren birfinketa (-% 35,9), metalurgia (-% 28,4), energia elektrikoa eta gasa (-% 8,4) eta zuraren industria (-% 5,2).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA
2009KO UZTAILA

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduare n aldean
KOSTUA GUZTIRA	115,5	0,2	-1,7	-0,9
ERAIKINAK	115,7	0,3	-0,5	-1,1
OBRA ZIBILA	114,7	0,1	-6,3	0,0
LEHENGAIEN KOSTUA	114,6	0,3	-2,9	-1,7
ERAIKINAK	114,9	0,3	-1,1	-1,9
OBRA ZIBILA	113,1	0,2	-9,2	-0,7
LAN-ESKUAREN KOSTUA	119,0	0,0	2,1	2,1

Iturria: EUSTAT
Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

 Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01

 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

 Datu bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp